

ZM

ZORROTZ MORROTZ

47. ZIKUA 2017ko IRAILA



MOISÉS ARCE ETA
JOSE MARIA CALONGE

HERRI MUGIMENDUKO KIDEAK

ZORROTZAKO FUTBOL SALA TALDEA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

3 Volkswagen Polo eta 30 iPhone 7 zozketatzen ditugu

Izena eman
kutxabankorain.eus
webgunean, gainditu
proposatutako erronkak
eta irabazi zozketetan
parte hartzeko aukerak.

Sustapenaren oinarriak hemen:
www.kutxabankorain.eus.

Sustapenaren azken eguna:
2017ko abenduaren 31.

Zozketaren egunean adinez nagusiak eta
Kutxabaneko kontu baten edo indarrean
dagoen txartel baten titularrak direnentsat
edo, horrelakorik ezean, zozketaren
egunean Kutxabanken diru-sarrera bat
helbideratuta dutenentsat.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa.



kutxabank
ORAIN



...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

ESKAINTZARik ONENA ZORROTZatik IRTEN BARIK

**Berton
kontsumitu**



Ikasturte berrirako

Dakizuenez, Auzo Elkarteak guztion bizi-maila hobetzeko gai guztiak lantzen ditu, baina duten garrantziagatik hiru gai hauek nabarmendu nahi ditugu:

Elkarbizitzarekin zerikusia duen orok modu bereziaz arduratzen gaitu. Auzoa kokoteraino dagoela uste dugu. Udalak orain arteko utzikeria alde batera utzi eta gai honetan behar duen ardura har dezan lehenatasuna da guretzat. Orain artean izandako ezbeharrak (asko eta anitzak, zoritxarrez) azkenak izan daitezzen.

FEVE geltokiaren lurperatzea beste ardatz garrantzitsua da. Afera hau indar politikoen agendan kokatzea lortu izan arren, oraindik ez da nahikoa eta ez dugu etsiko behin betiko aurrekontua eta lanak burutzeko datak izan arte.

Azkenik, aurreko ikasturtean hasitako proiektu sozioedukatiboa garatu behar da, auzoko giza garapenean eragina izan dezan. Horretarako, burubelarri jarraituko dugu lanean gizarte eragileekin, baita erakundeekin ere.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

Zorrotzako kultur aldzakaria
47. zenbakia. 2017ko iraila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:

amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Haizea Olleta
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila
- Lorna Yáñez

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzakariak Bilboko udalaren dirulaguntza jasotzen du



**ZORROTZA
HAZI
ARAZI**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Badatoz jaiak!



Aitor Marín

Heltzeaz da! Urtero bezala Txinbomikel garaiz iritsiko da zorrotzarrekin duen hitzordura. Irailaren 22tik urriaren 1era musika, barrakak, antzerkiak, tailerrak, kuadrilla lehiaketa, gastronomikoak, herri bazkariak, erakusketak, herri kirolak... eta nola ez, musika, ez dira faltako Zorrotzan. Adin guztientzako ekitaldi ugariz betetako egitarau oparoa prestatu du

Euskal Txokoak egitarauko hainbat ekintza babestuko ditu euskararen erabilpena sustatzeko asmoz

Aitor Marín

Ostegunean, irailaren 28an, Zorrotzako eta inguru eskolei zuzenduta Patata Tropikalaren “Kalean otso etxean uso” antzerkiarekin gozatzeko aukera izango dute auzotar txikien frontoian, goizeko 10etatik aurrera. Honek, Txinbotarrak konpartsa babesa ere badauka.


Jai Batzordeak aurtengoan ere, eta auzotar ororen parte hartzeko deia egiten dute, guztion artean giro onean bederatziz egun hauetaz gozatzeko.

Zuzeneko musikari dagokionez, talde eta estilo anitz taularatuko dira jaietan. Ostira-lean, Porco Bravo eta Distorsion talde barakaldarrak arituko dira. Larunbateko gauean, Kosmos taldearen berbera izango da protagonista txosnagunean. Igandean berriz, Havana 537 talde kubatarrak itxiko du lehenengo asteburua.

Bigarren asteburua ere ez da makala izango. Ostegunean, Hijos de tu Iglesia arituko da La Polla taldeari tributoarekin. Ostira-lean, Kresala taldearen berberaz gozatzeko aukera izango dugu aurten ere. Eta azken larunbatean, metal soinuak bereganatuko du taula. Pantera, System of a Down eta Rage Against the Machine taldeei tributo egiten dieten talde hauek arituko baitira hurrenez hurren: The Great Southern, Victims of a Down eta Renegades. The Sheriff Banden kontzertuak itxiko ditu aurtengo jaiak igande arratsaldean.

Bigarren larunbatean, irailaren 30eko goizean hain zuzen ere, “Bidaia ezezaguna” kale antzerki ikuskizuna eskainiko du Xilipurdi taldeak goizeko 12:30ean. Egun berean, Jai Batzordearen txosnatik abiatuko da “Berbapoteoa” eguerdiko ordu batean, bertsolariak eta trikitilariak lagunduta.

**TABERNA
INDARRA**



ABARO ESTRATA, 10

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ

aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

zmorrotz@gmail.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Bilboko Zirkuituak antzerki programak auzoetan eskaintzen duen udazkeneko antzerki programazioari ekingo dio berriro

Programazioa Zorrotzako Udaltegitira helduko da azaroaren 24an, Bea Insaren "Dora cocinera" lanarekin. Guztira hamabost proposamen jasoko du programak eta sarrera doakoa izango da saio guztietan.

Zorrotz Morrotz

Bilboko Zirkuituaren hamaseigarren edizioak auzoetan eskaintzen duen programazio eszenikoari ekingo dio berriro irailaren 28tik aurrera. Otxarkoagako, Castañoseko, Basurtuko, Santutxuko, Begoñako, Errekaldeko eta Zorrotzako udaltegiek, eta edizio honetan baita Buiako Udaltegiak ere, bertako antzerki eta dantza taldeen 15 proposamen jasoko dituzte urte amaierara arte, eta guztietarako sarrera doakoa izango da.

Bertako hamahiru konpainiak eta artistak eskainiko dituzten 15 emanaldirekin osatzen da programa, horien artean Bilboko Zirkuituan oso ezagunak diren batzuk, Bea Insa, A Trompicones edo Luna Llena konpainiak edo Aullidos de Otxar eta I Need a Hero besteak beste. Hiruhileko honetan berriro programatuko dira, ikus-entzuleek euren azken lanei eman dieten harrera bikaina ikusita.

Urteko azken hiruhileko honetarako programazioa, duela oso denbora gutxi ekoiztu diren kalitatezko ikuskizunek markatuko dute. Genero guztiak batzen dituzten ikuski-

zunak dira, eta azpimarratzekoa da euskarazko antzerkiak betetzen duen lekua, Anodino Teatroaren, Eneritz Artetxeren eta Ze Onda Antzerkiaren eskutik. Azken horiek "Heriotza bikoitza (Doble malta)" lana estreinatuko dute Bilborock-en abenduaren 13an. BilbaoEszenaren Artistak Egoitzan programako sorkuntza eszenikorako laguntzen azken deialdian aukeratutako proiektua da.

Aurreko edizioetan bezala, emanaldiak irailko, urriko, azaroko eta abenduko ostegunetan eta ostiraletan programatu dira, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Emanaldi guztiek sarrera librea izango dute, baina gero eta ikus-entzule gehiago joaten denez eta udaltegi batzuen leku kopurua mugatua denez, Basurtun, Castañosen eta baita gurean ere, Zorrotzan programatutako emanaldietarako beharrezkoa izango da ikuskizunaren egun berean Auzo Etxean gonbidapena jasotzea.

Emanaldi guztien zerrenda eta datak jakiteko eta informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturabarrutik.eus eta www.badbilbao.eus.



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98

2 BETAURREKO PROGRESIBO

195€ SOILIK ORDAINDUTA

*Graduaziori lotuta dago: zilindroko -2 eta eslerako +-4

C/ ESTRADA DE ABARO, 5 | 944 27 40 80

ibarretaluxury

OPTICA



BAR RUDI

ATHLETIC CLUB

BILBAO

MARADONA

CLARA CAMPOAMOR 2

Erreakzio mugimendu bat piztu du bizilagunen artean Landako sutean kaltetutako familia bati Zorrotzabason ostatu emateko prozesuak

Igor Gutiérrez

Maiatzaren 27ko sutearen ondorioz familia batzuk etxerik gabe geratu ziren. Etxe horrekin batera, Landako beste bi etxe eraisteko prozesua martxan zegoen ezbeharrak gertatu zenean. Legearen arabera, Udala etxebizitza aukera bat eskaintzera behartuta dago hala eskatzen duten familiei – jabearen kasuan, etxearen truk balio justu bat jasotzeko aukera ere badago.

Uztailen, Zorrotzabason bizilagunek Udala etxebizitzetako teknikariak Landako sutean kaltetutako familia bati pisu bat erakusten ikusi zituzten. Berehala, erreakzio mugimendu bat piztu zen eta auzo osora hedatu. Informazioz ezean, Udalak Landako hainbat familiari goi auzuneetan ostatu emateko asmoa zuelako ideia laster zabaldu zen. Horrek Zazpi Landan jadanik diren elkarbizitza arazoak areagotuko lituzkeela salatu zuten.

Lehen manifestazioen ondoren, Udalak bilera batera deitu zien hango auzokideei eta baita Auzo Elkarte eta Taldeen Koordinakundeari ere. Landako familia horren prozesua legea-

ren arabera premiazkoa zela azaldu zieten, ezbehar baten ondorioz etxea galdu zutelako, eta ezin geldiarazi zezaketela. Halaber, gai-nontzako familien prozesuak hasi gabe zituztela eta bakoitza nola bukatuko zen hainbat faktoreren araberakoa izan zitekeela adierazi zieten, hala nola, familiak berak aukeratutako soluzioa – balio justua, alokairu soziala, alokairu librekoa - edota udal etxebizitza librean ezaugarriak. Horrez gain, elkarbizitza plan bat diseinatzen ari zirela kontatu zieten eta antzeko egoeretan baino baliabide gehiago jartzeko asmoa zeukatela. Bukatzeko, informazio faltarengatik barkamena eskatu eta hurrengo pausoak eman baino lehen jakinaren gainean jarriko zituztela agindu zieten.

Udalarekin izandako bilerak ez zituen bizilagunak lasaitu eta hurrengo egunetan mobilizazioekin jarraitu zuten. Handik gutxira, helegitea aurkeztu zuten iraileko Plenoan irakurtzeko, non ostatu emate guztiak geldiaraztea eskatzen den. Hori gutxi balitz, uda honetan Zorrotzan izan diren elkarbizitza istiluek giroa guztiz nahasi dute, gai horren irtenbidea korapilatuz.

Samina eta erabateko gaitzezpena Soka kalean izandako eraso matxista salatzeke elkarretaratzean



Zorrotz Morrotz

Erasoa uztailaren 9an gertatu zen Soka kaleko etxebizitza batean. Herritar batek abisua eman zien Larrialdi Zerbitzuei, eta etxebizitzara heldu zirenean, emakumezkoa zaurituta aurkitu zuten. Arma zuri batek eragindako zauria zuen sabelean, eta, hori dela eta, Gurutzetako Ospitalera eraman zuten. Bilbon atxilotu zuen Ertzaintzak emakumearen bikotekidea, 19 urteko gizon bat, hurrengo egunean. Egun berean, Eraso sexistarik ez! zioen pankarta handiaren atzean, hainbat auzotarra izan ziren babesa eta elkartasuna adierazi nahi izan ziotenak erasotua izan zen emakumeari.



Zalbidea estarta

Estarta hau Zorrotza-Kastrexana errepidean hasi eta Zorrotzgoiti estartan amaitzen da. Bere garaian lantegi asko zegozan estarta honetan, tallerrak, serra bat, Boniren txatarrerria, Blanco Nuclear eta askoz gehiago. Baina hori baino lehen behorak goiko larretara, zazpilandetara, eramateko erabiltzen zan; trenbide paretik gora, handik bere izena.



Zorrotza Kastrexana errepidea, Zalbidea aldapa



Serreria del Norte



cafe**txinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errozioak
Kanapeak



Abaro estrada. 10
Tel. 94 608 85 74



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46



Taberna
AITOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

“ Munduak besoak zabalik ditu bertatik bidaiatu nahi duen edozein pertsonarentzat ”



AINHOA GARNIL

Bizitokia: Madril
Noiztik: 2015etik. (Zorrotzatik kanpo 2006ko irailetik)
Adina: 29 urte
Lanbidea: Publizitate sortzailea

2006. urtean, Zorrotzako jaiak amaitu eta hurrengo egunean maletak egin eta Segoviara abiatu zen Ainhoa. Hori izan zen bere lehenengo geralekua. Geroxeago Buenos Airesera joan zen ikasketekin jarraitzeko eta bere azkenengo bizitokia Madril da.

Naróa Peña eta Zuriñe Vila

Nolatan eta zergatik joan zinen?

2006. urtean Segoviara joan nintzen nire ikasketekin jarraitzeko. Nire ametsa publizitate sortzailea izatea zen eta hori lortzeko uste nuen ezinbestekoa zela beste herrialdeetako pertsonak ezagutzea, bizimodu desberdinak eta egoera ezezagunak bizitzea. Segovian 5 urte eman eta gero, 2012an, Buenos Airesera sormenaren inguruko master bat egitera joatea erabaki nuen. Azken hori nire bitzita profesionaleko erabakirik hoberena izan zen, bertan izugarriko aukera profesionalak izan bainituen. Argentinan urte bat egon ondoren, Bilbora bueltatu nintzen diseinu grafikoko estudio batean Arte zuzendari lana egitera. Bi urtez etxean egon ostean berriz sentitzen nuen aldaketa edo pauso bat gehiago eman behar nuela nire bitzita profesionalean eta Madriler a etortzea erabaki nuen eta hiru urte eman ditut jada hemen.

Oso ezberdina da hango bizimodua edo auzokoaren antzekoa da?

Oso ezberdina da, Zorrotza auzo oso aktiboa eta dinamikoa baita, eta Argentinan egon nintzenean, nahiz eta Zorrotzan bezala autogestio eta elkarte kultural ezberdinak egon, hauek ez dira epe luzerako izaten, jendea ez baita konprometitzen. Orain, Madrilen nagoela, gauza berbera ikusten dut. Auzoko bizimodua oso inpersonala da, auzokideak joan eta etortzen dira, ez dira epe luzerako gauzak antolatzen. Hori dela eta, askotan Argentinako eta Madrillgo lagunekin hitz egitean liluratuta geratzen dira nola horrelako auzo txiki batean Txinbottarrak, Gure Lurra elkarte edo Zorrotzako Jai Batzordea aurrera joatea posiblea ahal den.

Gogorra egin zitzaizun hango lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Ez. Urte asko daramatzat etetik kanpo eta horrek egoera ezezagunen aurrean indartsuagoa egin nau. Zailena Buenos Aireseko bizi-

modura moldatzea izan zen. Oso hiri handia eta ezberdina da; jatorri ezberdineko pertso-
nekin izan behar nituen harremanak eta bakoi-
tzaren ohitura eta bizimodura moldatzea pixka
bat kostatu zitzaidan. Baina ni oso berritsua
naiz, beraz, heldu eta astebete pasa ondoren
bertara eginda nengoan.

Zer da handik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxienean?

Ezagutu ditudan pertsonak eta egindako la-
gun guztiak izan da. Gutxien, ordea, parranda,
kar, kar. Madril zein Buenos Aires hiri han-
diak dira eta oro har, baita tabernak ere. Nik
Cooppy bezalako taberna txikiak ditut gustu-
ko. Parranda egiten dudanean bertan dauden
persona gehienak ezagutzea faltan dut eta
ikastola edo institutuko pasadizoak kontatzen
egotea.

Zorrotzara askotan bueltatzen zara?

Gutxienez bi edo hiru hilabete behin buel-
tatzen saiatzen naiz. Beharrezkoa izaten da
familia eta lagunekin egotea lanak kentzen di-
dan eguneroko energia berrizteko.

Zerbait izan duzu faltan?

Amatxok prestatutako janaria eta garai haue-
tan Bilboko Aste Nagusia edo Zorrotzako
Jaiak. Baina batez ere, momentu gogorak
bizi izan ditudanean nire familiakoen edo la-
gunen besarkada handi bat jasotzea.

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Zorramena da. Egun batzuk ohikoak izaten
dira, etxetik lanera eta lanetik etxera. Beste
batzuk, ordea, proiektu bereziak ditudanean,



zorramena izaten da. Baina, hori da nik auke-
ratu dudan bizimodua, nahiz eta batzuetan
errutina hartu bota, gustatzen zait egunak ez-
berdinak izatea.

Zein litzateke zure ustez hango ezaugarriak adierazgarriena?

Munduak besoak zabalik dituela bertatik bi-
daiatu nahi duen edozein pertsonarentzat.
Madrilen ezagutu ditudan pertsona gehienak
atzerrikoak direla. Oro har nik ezagutu ditudan
persona gehienak Madril epe laburrerako bi-
zitoki bezala ikusten dute.

Eta bukatzeko. Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu edo han geratuko zara betiko?

Urrezko galdera! Egia esanda, ez dakit zer
egingo dudan. Momentu honetan bikoteki-
dea dut eta biok pentsamendu berbera dugu:
lana dugun edozein tokitara joango gara, eta
hondartza egonez gero askoz hobeto! Beraz...
batek daki!

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIAI!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKA BIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

ZORROTZAKO FUTBOL SALA

Arduraz eta maitasunez, aurrera doan taldea

Zorrotzako kiroldegia eraiki zenean, Luis García eta Imanol Vélez auzorako areto-futbol taldea sortzeko lanetan jarri ziren. Hainbat gorabehera izan dituzte urte hauetan guztietan zehar baina arduraz eta maitasunez aurrera doaz, hasierako mailari eutsiz.



Testua: Igor Gutiérrez

Argazkiak: Zorrotzako Futbol Sala

Luis García "Luisete" eta Imanol Vélez aspaldiko lagunak ziren, biak ere futbol zale amorratuak. Luisetek urteak zeramatzan en-trenatzaile inguruetako hainbat areto-futbol taldeetan, Imanol laguntzaile zuela. Zorrotzako kiroldegia eraiki zenean, 1997an, auzoak bere talde propioa izateko aukera ikusi zuten eta buru-belarri jarri ziren helburu hori lortu arte. Hala, 1999an, Zorrotzako Futbol Sala sortu eta urte berean erregional 2. mailako txapeldun geratu ziren, goren mailara igoz.

Taldearen martxa onaren adierazgarri, urte eskas geroago kadete eta gazte taldeak

osatzea lortu zuten baina ez zuten luzaro iraun, jokalaria askok futbola nahiago baitzuten. Bitartean, nagusien taldeak Preferente mailarako saltoa egin eta sei denboraldi eman zituen horrela. Azken urtean, bigarren geratu eta gero, Euskal Ligan jokatzeko aukera zeukaten baina kuota ordaintzeko orduan, babesleak dirurik gabe utzi zituen eta laguntzaile berriak lortu zituztenerako berandu zen.

Izan ere, dirua muga bat izan daiteke areto-futbol talde baten jarraipenerako. Fitxak, joko-zainak, botकिनak, ekipajeak... gastu ugari auzo mailako talde batentzat. Eskerrak Zorrotzako saltoki batzuen laguntza dutela eta baita lagun askoren mesedea ere.



Azken urteotan marka ederrak lortu dituzte. 2014an nesken lehen taldea osatu zen eta 2016-2017 denboraldian, mutilen taldea berriro ere erregionaleko goren mailara igo da. Azken hori bere entrenatzaileari, maiatzean zendutako Dani Varonari, zor diote. Hilabete eskas lehenago, elkartearekin lotura handia zeukan Luiseteren emaztea ere, Eli Calvo, hil zen. Bien omenez, aurtengo jaietan, oroi-menezko partidak jokatuko ditu Zorrotzako Futbol Salak, Peña Santurtzi eta Peña Kalimotxo taldeak aurkari izanik. Hamar urtez, Imanol Vélez zenaren omenez egin izan dira partida horiek.

Aipatzeko dute Afrikako Kopan parte hartutako jokalaririk marokoar eta ginearrak dituztela:

2014an nesken lehen taldea osatu zen eta mutilen taldea berriro ere erregionaleko goren mailara igo da. Azken hori bere entrenatzaileari, maiatzean zendutako Dani Varonari, zor diote

Ayuu, Diego eta Vicente. Diego eta Vicente jokalaririk Ekuatore Ginea kopako garaile atara zen. Neskei dagokienez, Bizkaiko Selekzioan aritutakoak dira Irune eta Jone, azkeneko Euskal Kopa irabazi dutelarik. Argi dago gorabeherak gaintzeko sasoirik ez zaiela falta; arduraz eta maitasunez ereindako sasoiak, alegia.

MADNESS KAFETEGIA
 Elena eta Javier
 Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
 48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

Regalos
Omega
 oparidenda

Frai Juan 19
 Omega galeriak
 Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadatailes.com

MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
 Itsaski-haztegi propioa
 Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
 48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

JOSE MARÍA CALONGE ETA MOISÉS ARCE: Herri Mugimenduko kideak

“ Auzo mugimenduan erreleboa bermatuta dago. Itxaropen handia dugu gazteriarengan ”



85 urte ditu gaur José María Calonge gazteak, Bizkaiko Labe Garaletako enpresa komiteko kidea izan da, Auzo Elkarteko kidea urte askotan eta baita Jubilatuen Elkarteko presidentea 26 urte luzez. Moisés Arce aldiz, 75 urteko gazte borrokalaria da. La Navaleko langilea 14 urtetatik, langile mugimenduan, sindikatuan, Guraso Elkarteetan eta Auzo Elkartean ere bai bizitza osoa eman du. Herri mugimenduan bizitza osoko eskarmentuarekin, kontatzekoak dituzte haiek, eta ikasteko asko guk.

Nola heldu zineten Zorrotzara? Auzokoak zarete betidanik?

Calonge: Alonsotegikoa naiz, eta Zorrotzara heldu nintzen hiltegitara lan egitera etorri bainintzen. Urte batzuetan hor egon nintzen, eta azterketa bat egin ondoren, Bizkaiko Labe Garaietan finko sartu nintzen, erretiroa hartu arte. Moisés: Burgosen jaio nintzen istripuz. Guda zela eta, Burgosera joana zen ama, aita hor preso baitzegoen. Kantabrian eta Asturiasen egon ondoren, Muskizera bueltatu ginen, horkoa baitzen familia osoa, eta han egon nintzen ezkondu arte. Emaztearekin Santutxun hiru urte eman ondoren Zorrotzara heldu nintzen 1972an. La Navalen egiten nuen lan eta Zorrotzan bizitzea askoz erosoagoa zen niretzat, garraio urria zela eta.

Eta nola heldu zineten herri mugimendura?

M: Herri mugimenduan hasi nintzen batez ere gustukoa dudalako. Bizi naizen tokiko jendearen bizi kalitatea hobetzeko borrokatu behar delakoan nago. Santutxun hasi nintzen bertako Auzo Elkartearen parte hartzen. Oso gustukoa nuen eta Zorrotzara heldu nintzenean, elkartearen parte hartzen zuten Zazpi Landako bi neskaekin jarri nintzen harremanetan. Nire etxean bilera bat egin genuen eta elkartearen funtzionamendua azaldu zidaten... eta sartu nintzen. Urte batzuk eman nituen, baina Guraso elkartearen ere sartuta nengoan, enpresa-batzordean, sindikatuan... Gehiegi zen, baina urte batzuen buruan berriro ekin nion Auzo Elkartearen lanari. Oso elkarte indartsua zen! 20 pertsona baino gehiago ziren!

C: Ni lanetik heldu nintzen herri mugimendura. Hasieran ELA sindikatuan, eta auzoan Alderdi Komunistako bi mutilekin hasi nintzen auzo mailako arazoez arduratzen. Auzo Elkartearen egona naiz, baita Caritasen ere, eta 26 urtez izan naiz Zorrotzako Pentsiodunen eta Jubilatuen Elkartearen presidentea. Gaur egun, osasunak uzten didan heinean, mugimenduan jarraitzen dut.

Urte hauetan guztietan zelan aldatu da auzoa?

M: Izugarri. Sistema ere aldatu da. Auzo elkartearen sartu nintzenean, gauzak egin zitezela zen gure ardura. Berdin zitzaigun nola eta non, baina egin zitezela! Gaur saiatzeko gara



“ Gabezi asko zeuden eta orain baino askoz behar gehiago genituen, baina jendea konprometituagoa zela uste dut, batez ere funtsezko gauzetan ”

auzotarron iritzia kontuan har dezaten, eta batzuetan lortu ere bai! Adibidez, gaur egun izan balitz, ziu aski frontoia ez litzateke gaur egun dagoen tokian egongo, parkea erdibanatzen baitu. Baina bere garaian, eraikina soilik, izugarrizko garaipena izan zen!

C: Askok aldatu da. Lehen “basakeria” asko egiten ziren. Ondo pentsatu gabe.

Jendea ere aldatu da? Eta herri mugimendua?

C: Lehen jendea askoz konprometituagoa zen, batez ere funtsezkoak ziren gauzetan. Egia da gabezia asko zeudela eta behar gehiago genituela...

M: Jendeak parte handiagoa hartzen zuen edozein mugimendutan. Calongek aipatu duen bezala, behar eta gabezia gehiegi zeuden. Erakundeak gauzak egitera behartzea



“ Auzo elkarteetan sartu nintzenez, gauzak egin zitezela zen gure ardura. Berdin zitzaigun nola eta non ”

zen oinarria. Garai horietako herri-borroka gaur egungoa baino askoz gogorragoa zen, arlo guztietan.

C: Auzo mugimendura bultzatzera eta lan egitera etorri behar da. Orain askotan, interes politiko gehiegi dago.

Nola ikusten duzue gaur egungo gazteria?

M: Pasiboa. Bide luzea eginda aurkitu dute, eta parte hartze gutxiago dago. Egia da krisialdi ekonomikoak apur bat mugitzera behartu duela gazteria... Dena den, onartu behar da auzo mugimenduan erreleboa bermatuta dagoela. Agian ez guk ezagutu genuen bezala: gu hasi ginenean, Auzo Elkarteak baino ez zegoen antolatuta. Gaur egun Taldeon Kordinakundean talde asko antolatuta daude, eta gazteak talde horietan sartzen dira hainbat esparrutan lan eginez. Baikorra naiz eta jende gehiago sartuko dela auzo mugimenduan uste dut. Gazteriarengan itxaropen handia daukat.

Auzo honetarako lortutako hobekuntza gehienak auzo mugimenduen borrokari esker lortu dira. Borroka edo lorpen horien artean zein nabarmenduko zenukete?

C: Bilbobus Zorrotzaraino heltzea. Asko borrokatu behar izan genuen lortzeko. Errepi-deak moztu genituen, polizia aurrean korrika egin eta ostikadaren bat edo beste jaso ere bai... Eta ostikada eta korrika gehiago Zorrotzaraino heldu ostean, Zazpi Landaraino igo zitezten!

M: Asko eta asko. Azoka plaza adibidez. Azoka plaza auzoarentzako parke bihurtzea jendearen gozamenarako izugarriko aurre-erapausoa izan zen. Ez geneukan non bildu, non eman denbora! Feriala desagertu zenez gaur egungo parkea zeharkatzen zuen errepide bat egin nahi izan zuten, baina ez genien utzi.

Zuen ustez zeintzuk dira epe motzean auzo mugimenduak dituen erronka nagusiak?

C: FEVE geltokia lurperatzearena, inolako zalantzarik gabe. Urteak eman ditugu gai honen gainean. Hildakoak ere egon dira azkenengo urteetan eta oso garrantzitsua da.

M: Argi dago nagusia FEVEren geltokia dela, baina beste asko ere badaude: Punta Zorroztza proiektua aurrera atera beharko litzateke.

Udalak planteatzen duen bezala hogeitertu irxarotea gehiegizkoa da Zorrotzaren garapenerako. Horrekin batera, Kadaguako ibarra auzoarentzat berreskuratzea izugarria izango litzateke. Eta Punta Zorrotza eremu berri horretan anbulategi berria lortu beharko da, baina hori bai, espezialitate guztiekin. Ez dugu Areilzako anbulategiaren menpe egon behar, are gutxiago autobusak haraino helitzez ez direnean. Hori gazteoi tokatuko zaitzue defendatzea eta borrokatzea, baina ez duzue amore eman behar... Ufa, jarrai dezaket: Udaltegi berria beharko genuke, kiroldegia handitu ahal izateko... Eta azkenik, nahiz eta badakidan oso zaila dela, Zazpi Landa taldea ere konpondu beharko litzateke, baina jendearen onarpena beharko litzateke eta oso zail ikusten dut. Nire ustez, konponbiderik errazena, guztia eraistea eta berriro egitea litzateke, zerbitzu guztiekin... Baina nahiz eta zaila izan, ilusioa ezin da galdu.

Eta elkarbizitza?

M: Giro nahasia dugu azken bolada honetan. Arazo hau modu integralean landu behar dela uste dut, auzo osorako erabaki bateratuak hartuz. Udala mahai batera erakarri behar dugu, afera honetan inplikaturik dauden sail guztiekin, alkatetza barne, dagoen arduraren har dezaten. Hitz egin dezagun! Gero erakundeek jakingo dute zer egin eta nora jo. Baita guk ere, eta kalera ateratu behar bada, aterako gara. Baina elkarrekin, ez nor bere ziliborrari begira! Hausnartu behar dugu guztiok, anbiguotasunei uko egin, eta, eta guztion artean lortuko dugu, batez ere atzetik datozenei zor diegu.



LABURREAN

Zuen Zorrotzako txorrik kuttunena?

C: Azoka parkea.

M: Bai, parkea. Oraindik hobetu daiteke eremu hori, baina eroso egon daiteke.

Herri mugimenduan bizitako momenturik gogoangarriena?

C: Ez da politena izango, baina beti gogoratuko dut autobusak eskatzeko mobilizazioetara etorritako polizia bat. Oso altua zen. Eta ostikada pila bat jaso genuen berarengandik!

M: Auzo Elkartearen bizirik mantentzea. Egoera gogorak bizi izan ditugu, oso jende gutxirekin. Gaur egun elkarte eta Koordinakundea indartsu ikusteak asko poztzen nau.

Etorkizunerako desiraren bat?

M: Borrokan jarrai dezazuen, Auzo Elkarte eta Koordinakundea indartuz, FEVE geltokiaren lurperatzea eta anbulategi berri bat, baina espezialitateekin, e!

C: Elkartean jendea batu eta indibidualismoari uko egitea.

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

BAR KUPELA
Zorrotza-Kastrexana 4

AUTO ESKOLA KAIKU

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Patata tortilla



Osagaiak:

Olioia, patatak, arrautzak, gatza, urdaia, gazta eta gazta birrindua.

Hasteko, patatak zuritu eta txikitu. Bota olio asko zartagin handi batean. Olioia bero dagoenean, bota patatak. Frijitu 15 minutuz. Jarraian, kendu olioia eta gorde patatak plater batean. Arrautzak irabiatu eta gero, gehitu patatak eta gatz pixka bat. Bitartean, jarri olio pixka bat zartaginean eta berotu, bota nahasketaren erdia. Gainean jarri gazta eta urdai xerra batzuk, eta horren gainean nahasketaren beste erdia. Frijitu 3 minutuz. Ondoren, plater handi batekin buelta eman eta beste 3 minutuz utzi egiten. Bukatzeko, kendu sutatik eta plater baten gainean jarri eta moztu zerbitzatzeko.

Zailtasun maila	Erraza
------------------------	--------

Prezioa: 1,20 €

VENECIA TABERNA



Duela berrogei urte zabaldua, betiko taberna familiarra auzoan.

Goizeko 6etatik gaueko 11ak arte zabalik eguneroko, igandeak izan ezik.

Athleticen partida guztiak Zuri Gorri zaletuen egoitzan.

Zuen zain daude Venecia tabernan.

Abaro estrata, 10

48013, Zorrotza

Telefonoa: 94 482 06 25



Restaurante
Arsenio
Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Doinua:
Habenera

Irailarekin batera

udazkenaren ihintza

eta erdialde aldera

auzo txiki batek giltza

zorrotzarrok aspalditik

jaiak prestatzen gabiltza

elkarrekin ekitea

lema legez herrigintza

jaiak auzoak eginak

gu olatua ta bitsa

parekide ta herrikoiak

euskalduna nahi dut hitza

jai herrikoien defentsan

defendatzen da bizitza

ta hortik tiraka sortzen da

mundu berri baten printza.

Asier Urkiza



Ospa

Juan Luis Zabala. Susa. 2017. 160 orrialde



Telefonoz deitu dio Wim Wenders zinegileak. Kanpian Bob Dylanen kantu bat entzutean hunkitu egin da. Bartzelonatik bueltan, Mikel Laboa hil dela jakin du irratiz. Eduardo Txillidaren eskultura famatua rotaflexarekin apurtzea erabaki du.. Juan Luis Zabalaren 23 kontakizunetako pertsonaiaren bat ezagutuko duzu ziur aski. Litekeena da zeu izatea horietako bat, edo zure lagunen bat, edo auzokoa bestela.

Ez dago liburuko narrazioak batzen dituen gai bakarra, nahiz eta denen artean baden ahaidetasuna, irakurri ahala igartzen hasiko zarena. Ezinegonak

iheserako gogoia edo premia pizten du pertsonaia gehienengan, baina ihesa batzuetan ezinezkoa da, ezustekoen iturri ere bai inoiz, eta beste askotan abiaburura itzultzeko lehen pausoa.



Berri txarrak: Bakarrik egoteko modu berri bat

(Only in dreams) 2017



Duela hilabete batzuk amerikarrek asmatutako "Record Store Day" horren harira Berri Txarrakek bi kantaz osaturiko singela plazaratu zuen. Bertan, "Bakarrik egoteko" abesti berria eta The Wipers-en taldearen "No generation gap" kantaren bertsio bat aurkituko dugu, taldeak berak "Belau-naldi bat" izenpean bataiatu zuena.

Hirukotearen estreinaldi honetan pop kutsua nabarmena da. Bertanik aurkitu ditugu estilo horretako melodiak taldearen ibilbidean baina batez ere "Helduleku guztiak" EPan (duela 3 urte ateratako diska hirukoitzaren bigarren zatia) inongo konplexurik gabe landu zituzten. Eta abesti horiek influentzia zuzena izan dira dudarik gabe. Dena den, erritmo itsaskorrek betiere sendotasunez transmititzen dituzte power pop deritzoten estiloa sortuz. Eta zuzenekoetan adrenalina hutsa dira ezbairik gabe. Azkenik, esan beharra dago udaran zehar bira luze batean aritu ostean, duela aste batzuk estudioko lan berria (bederatzigarrena jada) burutu dutela. Ez dadila haria eban.



CaixaBank

Zeu zara izarra

Abaro estrata, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)

Tel. 94 459 00 90

www.caixabank.es



VÍA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Frontoia estali ondoren... FEVE lurperatu!



Pasa den ekainaren amaieran Zorrotzako frontoi estalia estreinatu genuen. Egun handia izan zen zorrotzarrentzat. Ia 30 urte ondoren Auzoak lortu zuen frontoia behingoz estaltzea. Hemendik aurrera zenbait ekimen egiteko azpiegitura duina eta estalia izango dugu Zorrotzan.

Frontoia 1987an eraikia izan zen eta hasieratik Auzo Elkartetik estaltzeko eskarea egin zen. Hurrengo urtean, 1988an, Auzotegi boletinarean portadan ikusten den bezala, Udalak bere hitza eman zuen frontoia estaltzeko. Baina askotan gertatzen den bezala, instituzioen hitzak haizeak eramaten ditu.

Urte hauetan guztietan Herri Mugimenduak behin eta berriz eskatu izan du frontoia estaltzea. 2007an, "Zorrotzako Plan herrikoi eta integrala 2007-2017" martxan jarri zen

Auzoan. Instituzioen utzikeria ikusita, Auzoko Herri Mugimenduak bere plan estrategiko propioa egitea erabaki zuen; alde batetik, auzoko beharrak instituzioen agendan jartzeko, eta bestetik, aukokideak herri dinamiketan aktibatuz. Azpiegiturei dagokionez, 5 lehtasunez osatutako taula egin zen, tartean, erresidentzia, eskuragarritasuna, haur eskola eta frontoia estalia zeuden. Aurten, Plan integral hori bukatzen den urtean, zoriondu behar dugu Herri Mugimendua. Alde batetik, herri dinamiketan nolabaiteko belaunaldi aldaketa eman eta gorde delako, eta bestetik, zenbait lorpen irabazi direlako. Adibide argia, frontoiaren estaltzea izan da.

Baina, lehtasunen artean bete gabeko puntu beltza oraindik betetzeko dago: FEVEren lurperatzea. Aspektu hori, frontoia bezala, aspaldiko herri aldarrikapena da, eta instituzioek ez dute entzuten. Madrilen eta Bilbon baietz asko entzun izan ditugu azken aldian. Uda baino lehen estatu espainoleko fomento ministroak FEVEren arazoa konponduko zela aipatu zuen. Baina Zorrotzan borroka historia nahiko daukagu jakiteko helburuak soilik lortzen direla herri aktibazioari eta mobilizazioari amaierara arte eusten bazaie. Horregatik, ez da momentua FEVEren inguruko dinamika moteltzeko, bai zik eta areagotzeko. Azken bi urteetan dinamika asko indartu da eta hori da kurtsio honetan egiten jarraitu behar duguna. Frontoiarekin bezala, orain, instituzioei bere hitzak betearazi egin behar dizkiegu. Deialdia auzotar guztiontzat, dinamika honetan inplikatuz. Animo!!!

Atzera pausorik ez, FEVE lurperatu eta geltokia gorde!!!

Demokrazia

Hitz gutxik hainbeste tranpa. Nork esaten duen, askotan. Nondik, ere bai. Ez dut gaur hitzaren jatorri grekoa aipatuko, aski ezaguna baita. Milaka eta milaka urte pasa eta gero gaurkotasunik galtzen ez duen hitza dela bai. Pil-pilean jarraitzen du egoten, hitza bera baino kontzeptuaren urritasuna, bere gabezia.

Irakurleak entzun izango du trajedun harroputz askoren ahotan, edo gizon zuri hetero-sexualaren lardieran.

Parlamentuetako demokratek legea izendatu dute jainko berrizat, eta hori gurtzen dute. Demokraziaren izenean, zelan ez. Hitza degradatu dute puntu bateraino, zeren legeak ezarri dituzte demokraziaren giltzarrapo. Legea injustua izanda ere, botere osoa du bere gainean.

Sailkatzeko ere erabili izan da, gu demokratok vs zuek erradikalak. Demokrata izatea elkarte (pribatu) bateko txartela balitz legez, aberats baten festara sartzeko pasahitza. Ongi etorriak izan zaitezte elitismo demokratiko berrira.

Sarrionandiak dio demokrazia plazan hitz egitea dela, gaur egun ordea plaza hori trabaz beteta dago. Ondo legoke plazaren ideia berreskuratzea, aurrez-aurre jesarri eta begietara begira hitz egiten hasteko. Baina komeni eseri baino lehen erratza pasatzea.

Asier Urkiza



iKasi
MiKasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa, ikastetxe publikoetan eta Zorrotzatik irten gabe



Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
📧 sietecampas@gmail.com



Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
📠 94 439 97 41
📧 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA

Hainbat hizkuntza ikaskuntza liburu eta hiztegitan, emakume eta gizonentzat presentatzen dituzten adibideetan atxikitzen zaizkien rolak eta irudiak, gizarte matxista tradizionalarekin bat datozenak dira (emakume garbitzailea, liraina, arropa gustuko duena...), gaur egun jada eman beharko litzatekeen berdintasunari oztopoak jarritz.

Beste alde batetik, aurreko zenbakian esan genuen bezala, hizkuntzek generoaren marka erabiltzea ez da berez arazo bat, baizik eta genero horretan oinarriturik egi-

ten dugun hizkuntzaren erabilpen desberdindua eta desorekatua. Horri amaiera ipini nahian, hizkuntzaren erabilera ez sexistaren kontzeptua sortu zen.

Gizarte ohitura eta instituzioetan eguneroko aldaketak ematen direla onartu dugu. Zergatik ez hizkuntzan, orduan? Hizkuntzaren hainbat marka populazioaren erdiaren bazterketa eta gutxipena ahalbidetzen badu, nola azaldu gaitezke horien aldaketaren kontra? Esfortzua suposatuko zaigula argi dago, buruan sartuta ditugun hainbat estruktura eta esaera birmoldatu behar izango ditugulako, baina dudarik gabe merezi izango du.

SALAKETA ARGAZKIA



Zorrotzako Lorategia taldean argirik ez

Udalak ez du nahi Zorrotzako Lorategi taldea eta Zorrotza Kastrexana lotzeko elementu mekanikorik jarri nahi. Era berean, ematen du ez dituela eskilarak konpondu nahi; ezta argitasuna handitu, bertako auzokideek askotan eskatu izan arren. Noiz arte?

Zorrotzako jaiak 2017

Zorrotzako Euskal Txokoak babestutako ekitaldiak

IRAILAK 28 OSTEGUNA

18:00etan **UMEENTZAKO ANTZERKIA**

**PATATA TROPIKALA
ANTZERKI LABORATEGIA:**
"Kalean otso, etxean uso".

Frontoian (Zorrotzako eta inguruko eskolei zuzenduta)

IRAILAK 30 LARUNBATA

12:30ean **KALE ANTZERKI IKUSKIZUNA
XILIPURDI TALDEA:** "Bidaia ezezaguna".
Azoka plazan

13:00etan **BERBAPOTEOA BERTSOLARI
ETA TRIKITILARIEKIN.**
Jai Batzordearen txosnatik



Zorrotzatik Mundura 2017: Marokon izandako esperientzia

Duela urtebete, gutxi gora-behera, Zorrotzako gazte batzuen buruetatik ekintza solidario bat egitearen ideia atera zen. Hilabete batzuk geroago ekintza horren ideia aurrera eramatea lortu zuten.

Gure auzoan, Azoka Solidarioa egin ondoren, hainbat diru lortu zuten gazte hauek. Helburua? Marokoko haurren hezkuntza hobetzea, bertako elkarte baten laguntzarekin.

Initiative Association Elkartek Midelt herrian udan zehar hainbat ekintza prestatzen ditu, bertako umeen oporrak bereziagoak egin ahal izateko. Esate baterako, hizkuntza klase, jolas, dantza eta abarren bitartez parte hartzeko aukera ematen diete. Jarduera horiek guztiak, gainera, bolondres joaten diren gazteen artean prestatzen dituzte, eta horretan aritu dira gure auzoko gazteak abuztuan zehar.

Zortzi gazte hauen esperientzia Afrikako lurralde txiki horretan ezin hobea izan da. Marokoko bizi baldintza gogorrak eta aldaketa kulturala gertutik bizi izan dituzte, eta, haien hitzetan: "Errepublikatuko genuke!"

Gaur egun bizi garen gizartearen, hain mires-tuta dagoen denbora besteei eskaintzea arraro samarra egiten zaigu, baina lortzen den ikasketa askoz baliotsuagoa da. Beste hainbat gauzaren artean hori da gazte solidario hauek gehien baloratzen dutena.

Lurra bakarra daukagu, hainbat harrsiz bandeduta, baina harresi horien atzean dauden pertsonak ezagutzen ditugunean denok berdinak garela ohartzen gara. Eskerrik asko Zorrotzako auzokide guztioi esperientzia ahaztezin hau posible egiteagatik eta gure gazteengan konfidantza izateagatik.





Ramón

Jendearen partehartzea handituko nuke: egitaraua eta jaiak prestatzen dituztenei auzotarrek laguntza gehiago eskaini diezaieten.



Iker

Berbena moduko musika gehiago ipiniko nuke, giro oso jatorra eta animatua lortzen duelako.
Kendu? Ez nuke ezer kenduko.



Iratze Pérez



Iratxe

Seme-alabak ditugunontzat, arratsaldeetan umeentzako ekintzak egotea oso garrantzitsua da.
Denontzako ekintzak badaude, baina soberan ezer ez.



Ariana

Umeentzako aktibitate gehiago. Jada daudenetaz aparte, arratsaldea pasatzeko ludoteka bat gehituko nuke.
Noizean behin sortzen diren rollo txarrak eta borrorak soberan daude zalantzarik gabe.



Tino

Rock musika eta kontzertu gehiago. Nahikoa dagoela badakit, baina inoiz ez da gehiegizkoa.
Ezer ez da soberan.



Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net



ZORROTZA F.C.
*kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!*


**CAFÉ
LAS NAVAS**

**Pintxo
gozoak
egunero**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 4

æek

euskara praktikoa



% 100 AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

MATRIKULATU!

urriaren 4an hasiko gara
comenzamos el 4 de octubre

ZORROTZA AEK

Zalbidea 7 • 944 414 920 • zorrotza@æk.eus

www.æk.eus/blogak/bilbo



Zorrotza

(Bilbo)

jaiak
2017



ZORROTZARA
HELTZEKO:



>irailak 22,
ostirala 22:30

PORCO BRAVO

+ **DISTORSION** + MAKETA LEHIAKETAKO
IRABAZLEA

>irailak 23, larunbata 23:30

KOSMOS

>irailak 24, igandea 19:30

HAVANA 537 talde kubatarra

>irailak 28, osteguna 21:00

HIJOS DE
TU IGLESIA: **LA POLLA** ri tributoa

>irailak 29, ostirala 23:30

KRESALA

>irailak 30, larunbata 22:30
Metal tributoen gaua

THE GREAT
SOUTHERN: **PANTERA**

VICTIMS OF A DOWN: **SYSTEM OF A DOWN**

RENEGADES:
RAGE AGAINST THE MACHINE

>urriak 1, igandea 19:30

THE SHERIFF BAND